

HITZ BITAN

TENISA. Roddick eta Schuettler, sailkatzen azkenak

Gaur hasiko dira Australiako Irekiko finalerdiak, eta Williams ahizpak eta Agassi dira favorito

Erredakzioa | DONOSTIA

Tenis denboraldiko aurreneko Grand Slama une erabakigarrian da, Australiako Irekiko finalerdiak jokatu baitituzte gaur eta bihar. Gizonezkoetan, Andre Agassik eta Wayne Ferreirak gaur jokatu dute aurrenekoa, eta finalerako bigarren txartela bihar izango dute jokoan Andy Roddick eta Rainer Schuettlerrek. Emakumezkoetan, aldiz, gaur jokatu dituzte bi finalerdiak: Venus Williams-Justine Henin, batetik, eta Serena Williams-Kim Clijsters, bestetik.

Final-laurdenetako azkeneko kanporaketak atzo jokatu zituzten. Serena Williamsek Meghann Shaughnessy erkidea har-

tu zuen mendean (6-2 eta 6-2), eta Clijstersek Anastasia Myskina errusiarra (6-2 eta 6-4). Biak ala biak nagusitasun osoz gailendu ziren.

Finalerdietara sailkatzeko zailtasun gehiago izan zituzten Schuettlerrek eta Rodickek, azken horrek bereziki. Bost ordu-tik gorako lehia luzean, inoiz Australiako Irekian jokatu duten partida luzeenetakoan, bost set behar izan zituen Younes El Aynaoui marokoarra kanporatzeko (4-6, 7-6, 4-6, 6-4 eta 21-19). Schuettler alemaniarrek eman zuen jardunaldiko ezustea, David Nalbandian hamargarren zerrendaburua kanporatuta (6-3, 5-7, 6-1 eta 6-0).

Ezusteak ezuste, Andre Agassi da Australian irabazteko hau-



MIKE FIALA / AP

Andy Roddick, kamiseta jarraitzaileei botatzen, atzo, bost orduko partida luzea amaituta.

tagaietatik lehian geratzen den bakarra. Hiru aldiz irabazi du Australiako Irekia eta bi urrats falta zaizkio laugarrena irabazteko. Aurrenekoa gaur eman beharko du Ferreyraren kontra.

Emakumezkoetan, Williams ahizpen arteko finala aurreikusi dute askok, baina estatubatuarrek aurkari gogorak dituzte final atarian. Serena Williamsek eta Clijstersek sei aldiz jokatu dute elkarren aurka. Horietatik

bost irabazi ditu Serenak, baina bi tenislarien arteko azkeneko lehia Clijstersek irabazi zuen, iazko Txapeladunen Torneoan. Venusek ere alde du Heninen aurkako estatistika, baina belgi-karrak gogo bizia du.

NBA. New Jersey Nets hartu zuen mendean Sacramento Kingsek (109-102)



LM OTERO / AP

Dallas garaipenaren bidera itzuli da

Dallasek eten egin du bolada txarra, atzo Houstoni irabazita (107-86). Dirk Nowitzki izan zen partidako onena. Alemaniarrak 26 puntu sartu zituen eta Steve Nash 20. Jardunaldiko beste partida interesgarrienetan, Sacramento Kingsek 109-102 irabazi zion New Jersey Netsi, eta Orlando Magic 103-94 Cleveland Cavaliersi. Argazkian, Pat Garrity Orlandokoa eta Zydrunas Ilgauskas Clevelandekoa.

FUTBOLA

Racingeko entrenatzaileak taldea utzi du, eta presidentek eta Jesus Gomezek zuzenduko dute taldea

Manuel Preciado Racingeko entrenatzaileak taldea utzi zuen atzo, Dimitri Piterman presidentearekin bildu ostean. Pitermanek taldearen inguruan hartzen zituzten erabakiak kontrolatu nahi zituela azpimarratu zuen. Preciado ez zegoen horrekin konforme, eta dimititu egin zuen. Ondorioz, Pitermanek eta Jesus Gomez Cos orain arte Palamosen Pitermanekin batera entrenatzaile izandakoak zuzenduko dute Kantabriako taldea.

ELURRA

Rudi Robertz alemaniarrek irabazi du Pirena lasterketako laugarren saioa

Rudi Ropertz alemaniarrek irabazi zuen atzo Pirena lasterketako laugarren saioa, Baqueira Bereteko eski estazioan. Ropertzen atzetik, Josep Domingo eta Jesus Raigoso sailkatu ziren, minutu eta bost segundora eta lau minutu eta bederatzi segundora, hurrenez hurren. Sailkapen nagusian Domingo da lehena, Ropertz bigarren eta Iker Ozkoidi nafarra hirugarren.

ESKIA

Iraupen eskiko Euskadiko Txapelketak jokatu dituzte asteburuan Candanchun

Iraupen eskiko Euskadiko Txapelketak jokatu dituzte asteburu honetan Aragoiko Pirinioetako Candanchuko eski estazioan. Larunbateko jardunaldian, proba luzeak jokatu dituzte, eta igandeko jardunaldian, erreleboetakoak. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 200 eskiatzaile inguruk hartuko dute parte txapelketa horietan.

TXIRRINDULARITZA

Fabio Sacchi italiarra da Down Under Itzuliko liderra orain, bigarren saioa irabazita

Saeco taldeko Fabio Sacchi txirrindulari italiarra da Down Under Itzuliko sailkapen nagusiko lider berria, bigarren saioa, Itzuliko saio nagusia irabazita. Sacchi ihes eginda iritsi zen helmugara, eta 14 segundoko aldea atera zion Robbie McEwenek (Lotto-Domo), Cedric Hervek (C.A), Andy Flickingerrek (AG2r), Lennie Kristensenek (CSC) eta Mikel Astarlozak (AG2r) osatutako boskoteari. Gaur, Glenelg eta Hahndorfen arteko saioa korrituko dute, 164 kilometrokoa.